

Ciberbullying kasu baten esku hartze proposamena tutoretzan

Autor: Mugica García, Mikel (Graduado en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte).

Público: Profesores de educación física. **Materia:** Educación Física. **Idioma:** Euskera.

Título: Ciberbullying kasu baten esku hartze proposamena tutoretzan.

Resumen

Artikulu honetan Gorputz Hezkuntzako saio batean gertatu den Ciberbullying kasu baten inguruko esku hartze bat proposatzen da. Esku hartzea irakasle tutoreak koordinatuko du baina 1. batxilergoko ikasleei eta informatikako irakasleari laguntza eskatuko die. Esku hartzeak hiru fase nagusi izango ditu: kontzientziatzea, hausnarketa eta prebentzioa. Kontzientziatze fasean Cyberbully pelikula ikusiko dute ikasleek. Hausnarketa fasean zenbait jarduera praktikoa egingo dituzte ikasleek 1. batxilergoko ikasleen laguntzaz eta informatikako gela erabiliz. Prebentzio fasean Smartphonaren inguruko erabilera kritiko eta seguruaren inguruko tailer bat antolatuko da.

Palabras clave: Ciberbullying, Tutoretza, Esku-hartzea, Gorputz Hezkuntza, Orientazioa.

Title: Intervention proposal facing a Ciberbullying case.

Abstract

This article proposes an intervention facing a Ciberbullying case that happened in the Physical Education class. The intervention is going to be coordinated by the tutor of the student group, but students from 1 bachiller and the computers teacher will also collaborate. The intervention has three main parts: 1) the raising awareness part will consist of a movie called: Cyberbully. 2) in the reflection part, students will answer some questions based on the movie helped by the students from 1. bachiller. 3) the prevention part will consist of a workshop related to a critical and secure use of mobile phones.

Keywords: Ciberbullying, Intervention, Physical Education, Tutoring, Orientation.

Recibido 2017-12-27; Aceptado 2018-01-12; Publicado 2018-01-25; Código PD: 091089

TESTUINGURUA

Ikasturte erdialdean gaude eta Gorputz Hezkuntzako saioa amaitu aurretik dutxatzera joan dira DBH 2ko ikasleak. Duxatu, arropaz aldatu eta hurrengo ikasgaiko klasera joan dira ziztu bizian. Hurrengo egunean, zuzendaritza taldea Gorputz Hezkuntzako irakaslearengana joan da, aldi berean, atzo saioa izan zuten ikasleen tutorea dena. Zuzendariak atzoko saioan mutilen aldageletan gertatu zena kontatu dio irakasle-tutoreari:

- Ikasleak dutxatzen ari zirela, batek beste bati argazki bat atera zion biluzik eta klaseko Whatsapp taldera bidali zuen arratsaldean. Ikasleak bere argazkia Whatsapp taldean ikusi zuenean gurasoei kontatu zien. Gurasoak gaur goizean etorri dira kexatzera eta gertakari honen aurrean neurriak hartzeko eskatzera.

Gorputz Hezkuntzako irakasleak (tutorea aldi berean), arazo honi irtenbidea emateko asmoz, esku hartze bat egitea pentsatu du, alde batetik, arazoa konpontzeko, eta bestetik, etorkizunean eman daitezken antzeko egoerak prebenitzeko. Bestalde, gertakarian inplikaturik dauden ikasleekin eta haien gurasoekin hitz egingo du arazoa modu zuzen batean konpontzeko. Hala ere, ondorengo paragrafoetan, ikasgelako esku hartzea azalduko da.

ESKU HARTZEA

Ikasle taldearen tutoreak 1. batxilergoko ikasleen eta informatikako irakaslearen laguntza eskatuko du esku hartzea aurrera eramateko. 1. batxilergoan hautazko ikasgai gisa eskaintzen da informatika eta 12 ikaslek aukeratu dute. Horrenbestez, tutoreak ikasleekin zein irakaslearekin hitz egingo du eta proposamena azalduko die.

Esku hartzea informatikako ikasleek egingo dute, informatikako irakaslearekin eta tutorearen laguntzarekin. Guztira hiru tutoretza saio eskainiko zaizkio esku hartzeari. Lehenengo saioan tutoreak soilik parte hartuko du eta bigarren eta

hirugarren saioan batxilergoko ikasleek. Beraz, esku hartzea hiru zati nagusitan banatuko da: kontzientziazioa, hausnarketa eta prebentzioa.

Kontzientziazioa

Kontzientziazio saioan pelikula Cyberbully pelikula ikusiko dute ikasleek. Gaur egun, mundu osoan ezaguna den “Juego de Tronos” telesailko Maissie Williams (edo Arya Stark telesailean) aktorea pelikulako pertsonaia nagusia dela aprobetxatuz, erakargarriagoa egingo zaie eta atentzio gehiago jarriko dute pelikulan eta ondorioz landu nahi den gaian (Cyberbullyng-a).

Hausnarketa

Hausnarket saioa tutorearen, informatikako irakaslearen eta 1. batxilergoko ikasleen artean prestatuko da. Informatikako irakaslearen baimenarekin, 2 informatika saiotan prestatuko da esku hartze saioa.

Lehenik eta behin, 1. batxilergoko ikasleei Cyberbully pelikula etxean ikusteko eskatuko zaie. Ondoren, informatikako lehen saioan, zenbait galdera eta jarduera prestatuko dituzte ikasleek, irakasleak emandako baliabideak eta aholkuak erabiliz. Baliabide gisa, Egonline, Cyberbulling (Prevenir y Actuar) eta IKT erabiltzeko eskuliburu praktikoa gidak emango zaizkie. Ikasleek pelikulan zehar ematen diren egoerak eta gidan agertzen diren argibideak erlazionatuz, zenbait galdera eta jarduera sortu beharko dituzte, ondoren 2. DBHko ikasleekin lantzeko. Galderak Google Drive online zerbitzuko formularioak erabiliz egingo dituzte, horrela galderak erregistratuta gera daitezzen gero ikasgelako tutoretza blogean txertatzeko. Gidalerro gisa, ondorengo elementuak jorratzeko eskatuko zaie ikasleei:

- Bullying eta Cyberbullyingaren arteko ezberdintasunak
- Biktimarengan sor daitezken arazoak
- Erasotzailearengan sor daitezken ondorioak
- Cyberbullying egitearen arrazoiak

Tutoretza saioan (2. saioa) informatikako ikasle bakoitza bi edo hiru ikasleekin (DBH 2koak) jarriko da eta prestatutako galdera eta dinamikak landuko dituzte. Batxilergoko ikasle bakoitzak bidelagun rola hartuko du eta DBHko ikasgelako bi-hiru ikasleen jarduera dinamizatu eta koordinatuko du. Galderak eta jarduerak egin ostean, erantzunak elkarjarririko dituzte talde guztiek.

Prebentzioa

Hirugarren saioan Smartphonaren erabilera kritiko eta seguruaren inguruko tailer bat egingo dute ikasleek. Tailerra 1. Batxilergoko ikasleek antolatuko dute. Tailera prestatzeko informatikako bigarren saioa erabiliko dute batxilergoko ikasleek. Baliabide gisa Pantallasamigas web orrialdea erabiliko dute. Pantallas amigas teknologia berrien erabilera segurua eta osasuntsua sustatzen duen inizatiba bat da. Web orrialdean gai ezberdinak lantzeko material ugari aurkitu daiteke, hala nola, material didaktikoa, hitzaldiak, esku hartzeak, artikulua etab.

Tutoretza saioan (3. saioa) aurreko saioko dinamika bera jarraituko da. Informatikako ikasle bakoitzak DBHko ikasgelako 2-3 ikasle hartuko ditu eta prestatu dituzten azalpen eta ariketa ezberdinak burutuko dituzte.

EBALUAZIOA

Saio hauetan zehar landu dena ebaluatzeko, 2 tresna erabiliko dira: ikasleek bete duten google drive formularioa eta hausnarketa pertsonala. Formularioa 2. saioan erantzungo dute eta hausnarketa pertsonala 3. saioaren bukaeran egingo dute. Kalifikazio irizpidea GAI edo EZ-GAI izango da.

ETP INTEGRAZIOA

Proposaturiko esku hartzea, hainbat arrazoiengatik burutu da horrela, besteak beste, kasua gertatu eta ahalik eta bizkorren erantzuna emateko. Ordea, ekintza tutoretza planean integratzeko, Ementec egitasmoareki elkarlanean integratu

daiteke. Hala, profesional bat ekarri dezakegu eskolara internet eta IKT baliabideen erabilera seguru eta kritiko baten inguruan hitz egitera. Ementic egitasmo piloto bat da Azpeitiko eta Azkoitiko ikastetxeek eta Eusko Jaurlaritzak, gazteei, hezitzaileei eta gurasoei Interneten eta sare sozialen erabilerak dituen arriskuen eta aukeren berri emateko. Hortaz, egitasmoaren arduradunak gure ikastetxera etortzea saiatuko ginateke guk landu nahi dugun gaia landu eta etorkizunean gertatu diren antzeko Cyberbullying kasuak saihesteko.

Bibliografía

- Comisión de Libertades e Informática.(2008). Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiai Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoa. Comisión de Libertades e Informática.
- Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza. (2015). Egonline: guía pedagógica para trabajar la educación en las nuevas tecnologías. *Servicio central de Publicaciones del Gobierno Vasco.*
- Luengo, A. (2014). Cyberbullying: prevenir y actuar. *Huna comunicación. ISBN: 978-84-87556-60-9*